

Gure eskola-liburuak



**EUSKARA
MINTZAGAI**

7

EUSKARA MINTZAGAI bildumak gure hizkuntzaren sustrai, enbor, adar eta fruituak ondo asko aztertu nahi ditu eta euskaltzale guztiei ikerlan monografikoetan eskaini. Milaka urte dituen mintzaira honen jatorria, bilakaera, osagaiak, kanpora eta barrura izandako harremanak, euskal jendeak sortutako kultur adierazpideak... Halakoak eta beste gertutik eta modu arin batean ezagutzeko prest dagoen horrek badu zer irakurri, zer ikasi. Aldian-aldian **HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK** argitara emango dituen liburuxka hauek gure hizkuntza, gure herria, geure burua hobeto ezagutzeko aukera emango digute.

Euskarazko lehen argitalpenak XVI. mendekoak ditugu, eta egungoarekin erkatuz gero, uzta urria zen noski. Urritasun horretan, erlijio gaiak dira gehien jorratutakoak eta elizgizonak ditugu idazleak (salbuespenak albuespen). Azken hamarkadetan, aldiz, uzta joria dugu, literatur biziberritzea. Haur literatura eta eskola-liburuak geroxeago hasten dira argitaratzen eta hauek ere, bata zein bestea, gutxi dira.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



Gure eskola-liburuak



Paulí Dávila Lore Erriondo



Gure eskola-liburuak

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:
<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia:	1. a, 2012ko irailean
Ale kopurua:	1.500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Diseinua eta azala:	Antton Olariaga
Maketazioa:	Antton Olariaga
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet:	www.euskadi.net
Inprimaketa:	Estudios Gráficos Zure, S. A.
ISBN:	978-84-457-3163-5
Lege gordailua:	VI 405-2012

Irakurleak eskuartean duen liburua *Euskara mintzagai* bildumaren zazpigarren alea da, eta *Gure eskola-liburuak* du izenburu. Bertan, Udako Euskal Unibertsitateko Pauli Dávilak eta Lore Erriondok euskarazko eskola-liburuen historia azaltzen digute.

Liburua bi zatitan dago banatuta: «Hastapenetatik Espainiako Gerra Zibilera arte» eta «Frankismoa eta EAEko autonomiara arteko trantsizioa. Berrikuntza pedagogikoa».

Testuliburuaren hastapen formalak XIX. mendearen bukaera aldera agertu baziren ere, esan behar da XVI. mendekoa dugula lehenengo dotrina, Joannes Leizarragaren *ABC edo Christinoen Instructionea* hain zuzen. Bestalde, hemen aurkituko ditu irakurleak XVIII. eta XIX. mendeetako zenbait libururen erreferentziak: Kardaberaren *Christauaren doctrina*, Ochoa de Arinen dotrina, Martin Harriet-en gramatika, Archuren gramatika, Geronimo Zalakainek moldatutako *Iracurtzaren asierac* eta Sabino Aranaren *Umiaren lenengo aizkidia*, beste askoren artean.

Esan behar da, bestalde, 1890etik 1937ra bitartean hasi zirela argitaratzen ikuspegi abertzalea zuten kartilak, irakurketa-liburuak, geografia edo aritmetika ikasteko liburuak eta abar.

Baina gauzak aldatu egin ziren gerraostean, eta, mundu guztiak dakien bezala, frankismoaren garaian debekatuta zegoen Espainian ohikoak ziren testuliburuak ez zirenak erabiltzea. Hala ere, ikastolen mugimenduari esker, 1975a baino lehen liburu ugari argitaratu ziren euskaraz, eta horiek guztiek ere beren lekua dute hemen. Hor daude, besteak beste, gaur egungo jende askori oso ezagunak egingo zaizkion *Saioka*, *Euskara hire laguna*, *Euskalduntzen*, *Jalgi Hadi* eta abar.


Irakurleak, beraz, denetatik aurkituko du bilduma honetan: dotrinak, gramatika eta silabarioak, ipuinak eta fabulak zein testuliburuak. Eta aukera izango du ikusteko nolakoak ziren garai batekoak eta nolakoak azkenaldikoak, batez ere euskararen normalizazioa onartu zenetik honakoak. Bestalde, Julene Azpeitiaren *Umien adizkidia* liburuxkaren faksimila banatuko da liburuaren gehigarri modura.

Argitalpen hau Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Udako Euskal Unibertsitatearen arteko lankidetzari esker sortu da.

Kultura Saila
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

AURKIBIDEA

ESKOLA-LIBURUEN HISTORIA	11
HASTAPENETATIK ESPAINIAKO GERRA ZIBILERA ARTE	12
1.- Dotrinak	12
2.- Gramatika eta silabarioak	14
3.- Ipuinak eta fabulak	20
4.- Euskarazko testuliburuak	22
FRANKISMOA ETA EAE-KO AUTONOMIARA ARTEKO TRANTSIZIOA. BERRIKUNTZA PEDAGOGIKOA	31
1.- Ikastolen mugimendua eta eskola-liburuen premia	32
2.- Aukera pedagogiko berriak, testuliburuak eta eskola-materiala	34
3.- Araudia eta euskarazko testuliburuak	36
Eranskina: LIBURUEN EDUKIEN BILAKAERA	37





ESKOLA-LIBURUEN HISTORIA

Euskarazko lehen argitalpenak XVI. mendekoak ditugu, eta egungoarekin erkatuz gero, uzta urria zen noski. Urritasun horretan, erlijio gaiak dira gehien jorratutakoak eta elizgizonak ditugu idazleak (salbuespenak albuespen). Azken hamarkadetan, aldiz, uzta joria dugu, literatur biziberritzea. Haur literatura eta eskola-liburuak geroxeago hasten dira argitaratzen eta hauek ere, bata zein bestea, gutxi dira.

Historian zehar nahiko berria da euskarazko testuliburuaren argitalpena eta erabilera, ohikoa izanik gaztelera edo frantsesez argitaratutakoak erabili behar izatea Euskal Herriko ikastetxeetan. Euskarazko testuen argitalpena XIX. mende amaierako ideologia aldaketari txertatuta agertzen zaigu, abertzaletasunari hain zuzen ere. Garai honetan, kristau-ikasbidea eta gramatika dira nagusiki eskolan euskaraz lantzeko argitaratzen diren liburuak. Aipatu gaiak baitziren 1876ra arte eskoletan euskaraz ametzuten ziren testu bakarrak.

1890etik 1937ra bitarte hasten dira argitaratzen ikuspegi abertzalea duten euskarazko silabarioak (irakurtzen ikasteko kartilak), irakurketa liburuak, geografia edo aritmetikaren irakaskuntzarako eskola-liburuak etab.

Frankismo garaian debekatuta zegoen Espainian erabiltzen ziren testuliburuak ez zirenak erabiltzea, baina ikastolak sortu eta hedatzeari esker lortu zen testuliburuak euskaraz sortu eta argitaratzea. Hedatze honetan, garrantzia izan zuen frankismo osteko aldaketa politikoak, baina benetan erabakigarria euskararen estandarizazio prozesua izan zen, euskara batua, bai eta euskalduntze prozesua ere. 1975ekoa dugu Euskal

Autonomia Erkidegoan Elebitasun Dekretua eta 1982an, Euskararen Erabilera Arauzkotezko Legea. Ordurako, argitalpen oparotasunaren murgilean daude txertatuta eskola-liburuak.



Ormaiztegiko ikasleak. 1924



Mutiloako ikasleak. 1929



HASTAPENETATIK ESPAINIAKO GERRA ZIBILERA ARTE

Esan bezala, Espainiako Gerra Zibila baino lehen, oso eskola-liburu gutxi argitaratzen ziren, urriak baitziren euskara irakaskuntzan presente zuten eskola jardunak. Eta zirenetan, espainola edo frantsesa irakasteko tresna bailitzan erabiltzen ziren; hau da, euskaldun zirenei, euskararen bitartez irakasteko espainola edota frantsesa.


Eskola-liburuak pixkanaka joan ziren espainiar estatuan hedatzen XIX. mendean barrena, irakaskuntza metodoak aldatu ahala eta estatuek irakaskuntzaren ardura hartzen zihoazen heinean. Zaharrenek oso funtzio zehatzak betetzen zituzten eta jakina da guztientzat zein motatakoak ziren: dotrinak, gramatikak eta ipuinak.



1.-DOTRINAK


1571n argitaratu zuen Joanes Leizarragak *ABC edo Christionen Instructioneoa othoitz eguïteco formarequin*. Haurrei zuzenduta zegoen eta otoiitez gainera, euskarazko irakurketari buruzko aholkuak biltzen zituen. Berak egin zuen Bibliaren lehen itzulpena euskarara. Euskaraz argitaratutako lehen liburuetakoa bat izateaz gainera, protestantismoaren ideia berriak sustatzeko asmoarekin idatzita dagoen dotrina da eta Nafarroako erregina zen Albreteko Juanaren babesari izan zuen. Testu hau igandetako eskoletara joaten ziren haurrei zuzenduta zegoen, eta euskaraz irakurtzeari buruzko iradokizun pedagogikoak ditu¹.

1596an, Betolaza Doktoreak, *Doctrina Christiana en romance y basquence* argitaratu zuen Bilbon.



Betolazaren dotrina. 1596

¹ Olaizola, J.M. de: *Historia del protestantismo en el País Vasco. El Reino de Navarra en la encrucijada de su historia*, Pamplona, Pamiela, 175. or.



Ochoa de Arinen dotrina. 1713

1713an, Jose de Ochoa de Arinek Donostian argitaratu zuen *Doctrina Christianaren Explicacioa Villa Franca Guipuzcoaco onetan itz eguiten den moduan*.

1732an, Baionan, *Guiristionoen doctrina laburra haur gastei irakhasteco eta Bayonaco Diocesaco bigarren*




Guiristinoen doctrina laburra. 1780ko edizioa

Catechima (1733) argitararazi zituen Baionako gotzainak.

1735ean, Iruñean, goi-nafarreraz argitaratu zuen Elizaldek *Apecendaco doctrina cristiana euskeraz*. 1747an, Aita Larramendirena izan daitekeen *Icasbidea, Cristauen doctrina azalqueta laburraquin galdeaz eta erantzuteaz* argitaratu zen Burgosen. Honako hau, Aita Asteteren dotrinaren itzulpena zen.

1757an, Larizko Xabierrek elebitan argitaratu zuen Madrilen, *Cristau dotrinaren explicacioa aur-entzat ta andientzat-Explicación de la doctrina cristiana para los niños y los mayores*. 1760an Agustin Kardaberazek ere Asteteren katixima itzuliko du honako izenburu honekin: *Christauaren doctrina*.

1775ean, Bartolome Olaetxeak, Bilbon, bizkaieraz argitaratu zuen *Cristinauben doctrina*.



Kardaberazen Christauaren doctrina. 1760



Olaetxearen dotrina. 1848ko edizioa

Nolanahi ere, arrakastarik handiena, Asteterenaren itzulpenak izan zuen eta hau izan zen XIX. mendean barrena euskaraz hedatu zen dotrina.

2.-GRAMATIKA ETA SILABARIOAK

Ezaguna dugu dotrinak oso garrantzitsuak izan zirela, hauek baitziren igandetako eskoletan eta ikastetxe publikoetan euskaraz ametitzen ziren testuliburu bakarrak. Gainerako irakaskuntza guztia, gaztelaniaz edo frantsesez bideratua zen.

Ez da gauza bera gertatu euskarazko gramatika-liburuekin. Hauek, XVIII. mendearen amaieran hasi ziren agertzen, eta Espainian erabiltzen ziren gainerako gramatika-liburuen antzekoak ziren². Euskal lurraldeen artean, Gipuzkoak zuen euskaldun kopururik handiena, eta bertako irakaskuntza ikuskatzailea oso zen zorrotza testuliburuaren erabilera zela eta. Honek, dotrina baino ez zuen uzten euskaraz irakasten, baina ez zien haurrei euskaraz hitz egiten uzten, ez eta legez baimendurik ez zegoen libururik erabiltzen gaztelera ikasteko ere.

Honekin guztiarekin adierazi nahi duguna hauxe da, ez dakigula zenbaterainoko garrantzia eta eragina izan zuten gramatika-testuek, ez baita Ikuskaritzako txostenetan hauei buruzko inolako aipamenik egiten. Gerta daiteke testu horietako batzuek nagusitasuna izatea ikastetxe pribatuetan edo Iturriagak Hernanin zuzentzen zuen ikastetxean, edota ikastetxe publikoetan, nahiz eta ikuskaritzak honen berri ez izan. Hala ere, aipagarria da Astigarraren gramatika-testuak izandako berrargitarapen kopurua. Lehen argitalpena 1825. urtean izan zen; 1892an, hamalagarrena eta 1933an, hemeretzigarrena³.


² Benito, J. de: *La enseñanza de primeras letras en Gipuzkoa (1800-1825)*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia-Gipuzkoako Artxibategi Nagusia, 1994.

³ Astigarraga, L.: *Diccionario manual bascongado y castellano. Elementos de gramática. Para el uso de la juventud...* Donostia, I.R. Baroja, 1825. Argitarapen urteak: 1825, 1827, 1839, 1858, 1861, 1865, 1870, 1876, 1877, 1881, 1884, 1887, 1889, 1892, 1911, 1917 (16 arg.) eta 1933 (19 arg.). 1889ko argitarapenetik aurrera ez da azaltzen euskal gaztediari zuzendutako sarrera. 1911ko argitarapenetik aurrera, izenburua aldatu egin zitzaion eta honako hau jarri: *Diccionario manual euskera y castellano y elementos de gramática para uso de la juventud de Guipuzcoa con ejemplos de ambos idiomas*.

Garaiko hezkuntza jardun aipagarriena Euskal Herriaren Lagunen Erret Mintegia izan zen, baina ez zuten euskarazko testulibururik argitaratu.

Euskara-gaztelera hiztegi saiakera bakarra ezagutzen dugu, eta ez zuen arrakasta handirik izan. Francisco Xavier de Santiago de Palomares-ek idatzi zuen. Honen bitartez, idazteko metodo berri bat lantzen saiatu zen; baina esan bezala, ez zuen arrakastarik izan.


Euskara ikasteko gramatika-testuak erabiltzeko joerari Rafael Mikoletak ekin zion, 1653an argitaratu baitzuen *Modo breve de aprender la lengua vizcaina*. Gramatika-testu honetan, nagusi eta zerbitzariaren arteko elkarrizketak agertzen dira eta ulertzeko lagungarri gisa eskaintzen du gaztelera-itzulpena.



Harrieten gramatika. 1741

Baionan argitaratu zuten 1741ean, Martin Harriet-ek idatzitako *Gramatica eskuaraz eta francesez*, euskara ulertu ahal izateko testua. Bertan, gramatika eta hiztegia lantzen ditu⁴.

Hala ere, XVIII. mendeko gramatika-testu aipagarriena litzateke *Eusqueraren berri onac eta ondo escribitceco, ondo iracurteco, ta ondo itzeguiteco Erreglac: Cura Jaun, ta escola maisu celosoai Jefuf-en Compañiaco Aita Agustin Cardaberaz ec efqueñtcen, ta dedicatcen dieztenac*, aita jesuita Agustin Kardaberazek idatzia eta Iruñean argitaratua 1761. urtean, apaiz eta irakasleei zuzendua. Bertan, haurrak gaztetandik alfabetatu behar direla agertzen du. Hau dugu dudarik gabe XVIII. mendeko gramatika testurik aipagarriena.




Eusqueraren berri onac. 1761

4 Calleja, S. y Monasterio, X.: *La literatura infantil vasca. Estudio histórico de los libros infantiles en euskera*, Bilbo, Ediciones Mensajero-Deustuko Unibertsitatea, 83. or.

Gramatika elebidunak

XIX. mendean argitaratutako gramatika-testuak ez dira euskararen gramatika ikasteko, baizik eta hizkuntza nagusiak ikasteko; hau da, gaztelera edo frantsesa lantzeko testu elebidunak, bitxia badirudi ere. Ezaugarri hau betetzen zuten Astigarraga, Iturriaga, Archu eta Egurenak idatzitakoek. 1852an J.M. Archuk *Uskara eta Frantes Gramatika, Uskalherrietako Haurrentzat Eguina* hurrei zuzendutako gramatika argitaratu zuen.




Archuren gramatika. 1852

Garai honetan, hizkuntza hauek estatu hizkuntza gisara ezarri ziren eta hori zela medio, ziurtatu egin behar zen biztanle guztiek ondo ikasi eta jakin behar zituztela, ez baitzen ohikoa Gipuzkoa, Bizkaia, Iparraldea eta Nafarroa iparraldean hizkuntza haien jabe izatea. Lurralde hauetan, gutxi erabiltzen ziren gaztelera edota frantsesa.

Testu hauen egileak hezkuntza alorrekoak ziren: maisuak (Astigarraga eta Iturriaga) edo ikuskariak (Eguren eta Archu); haiek ziren ikastetxeen errealitatea hurbiletik ezagutzen zutenak eta jabetzen zirenak ikasleek gaztelera

edo frantsesa ikasteko zuten zailtasunarekin, ez zen-eta beren hizkuntza. Hau dela eta, irizpide pedagogikotzat hartzen dute ikasleek ezagutzen duten hizkuntza erabiliaz (euskara) irakastea estatuko hizkuntza. Honela, euskaraz abiatzen zuten irakaskuntza, eta honen bitartez estatuko hizkuntza erakutsi ostean, gainerako ikasgaiak gaztelera edo frantsesez lantzen zituzten; euskara, berriz, dotrina lantzeko erabiltzen zuten soilik. Hau honela izanik ere, eta helburutzat ez bazuten ere, honela egitearen ondorioz, euskaraz irakurtzen eta idazten ikastea eragin zuten.




Egurenen metodoa. 1867

Arazo pedagogiko hauek zituen gogoan Agustin Pascual Iturriaga maisuak (1778-1851). Bide batez, hezkuntza planteamendu aurrerakoiak ezarri ziren garai hartarako. Honela, Hernanin (Gipuzkoa) zuen ikastetxean, zigor fisikoak baztertu zituen eta irakaskuntza elebiduna sustatu. Horretarako argitaratu zituen bi testu, lurralde honetako lehen mailako ikastetxeetan erabiltzeko⁵.

⁵ Bujanda, J.: *Euskara eskolan eraiki nahi zuen euskal pedagogoa aurrekoia: Agustín Pascual Iturriaga, Hernani 1778-1851*, Bilbao, Udako Euskal Unibertsitatea, 1991.

Astigarragaren antzera, berak ere gaztelera irakastea zuen helburu, ez euskara, eta horretarako idatzi zituen *Arte de aprender a hablar la lengua castellana para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*, 1841ean eta *Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa*, 1842an.



Astigarragaren metodoa. 1841

Berak horrela dio hitzez hitz: «Es muy de extrañar que siendo el romance la lengua de nuestro gobierno, y estando los Señores maestros de primeras letras encargados de enseñárselo a sus discípulos, por sernos a los bascongados necesario e indispensable a unos, útil a otros y conveniente a todos, no se hayan proporcionado medios auxiliares, que faciliten su enseñanza. Sin embargo, son estos tanto más necesarios cuanto que el genio del romance es diametralmente opuesto al del bascuence»⁶.

6 Iturriaga, A.P.: *Dialogos basco-castellanos. Para las escuelas de primeras letras de Guipuzcoa*, Hernani, 1842, aitzin-solasa, 1.or.



Baionan argitaratu zuten 1852an *Uskara eta Franzes Gramatika. Uskalherrietako haurrenzat eguina*, J.B. Archuk idatzia (1811-1881). Berak esanak dira honako hitz hauek: «en composant cette Grammaire bilingue nous avons eu pour but de fournir aux instituteurs du Pays Basque un moyen d'initier leurs élèves à la connaissance de la langue française [...] Et de les familiariser avec le génie de la langue nationale»⁷. Alegia, guztiz bat dator euskara, frantsesa irakasteko bitarteko gisara erabiltzeko planteamenduarekin. Gauza bera da J.M. Egurennek egiten duena *Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas* testuarekin, Gasteizen 1867an argitaratua. Hitzaurrean azpimarratzen du gaztelera irakastearen premia eta garrantzia; izan ere: «la inmensa mayoría de los niños que asisten a las escuelas de nuestro país no entiende el castellano...cuando empiezan a asistir a la escuela

7 Archu, J.B.: *Uskara eta Franzes Gramatika Uskalherrietako haurrenzat eguina*, Baiona, Fore eta Lassarre, 1852, V-VI or.

no entienden bien el castellano, y como en este idioma aprenden a leer, escribir y todos los demás ramos de la enseñanza, escepto la doctrina cristiana, no comprenden lo que leen y estudian»⁸.

Nolanahi ere, Geronimo Zalakainek idatzia eta 1875ean Tolosan argitaratu zuten *Iracurtzaren asierac edo lenasteac Euscalerrico aurrentzat*. Bertan, planteamendu aldaketa agertzen zaigu; izan ere, ez da euskara erabiltzen gaztelera ikasteko tresna gisara, baizik eta euskararen irakurketa lantzeko, beste hizkuntzei inolako erreferentziarik egin gabe.



Iracurtzaren asierac. 1875


1896an, K.A. Ormaetxeak («Bizkaiko elxgizon batek iratziya» izenean sinatuta), *Agakia. Euskeras irakurten ikastekoa* silabarioa argitaratu zuen, Amoroton (Bizkaia)

baitzegoen maisu lanetan. Kristau-ikasbidea ulertzen laguntzeko asmoarekin idatzi zuen.

Sabino Aranak antzeko lana argitaratu zuen 1897an, *Umiaren lenengo aizkidia. Bizkaiko euzkeraz irakurtzen ikasteko* hain zuzen ere.



Agakia. 1896



Lenengo aizkidia. 1897

Bere izena baino, «bizkaitar batek» jarri zuen sinadura modura. Lan honen hitzaurrean, guraso eta irakasleei hitz egiten die Aranak, aberriaren garrantzia

⁸ Eguren, J. M. de: *Método práctico para enseñar el castellano en las escuelas vascongadas*, Gasteiz, El Seminario Católico Vasco-Navarro, 1867 (1. arg.). V-VI or. Idazlan honetaz gainera, berak argitaratu zuen *Diccionario Vasco-Castellano*, Gasteiz (1867) eta *Guía manual del lenguaje para uso de los viajeros en el País Vasco*, Gasteiz (1868).

azpimarratuaz eta hizkuntzaren bidez biziberritzea nabarmenduaz.

Euskararen gramatika ikasteko liburuak argitaratzeari jarraipena emango zaio aurrerantzean ere, nahiz eta guztiak ez ziren irakaskuntzari zuzendutakoak. 1913an, J.M. Lertxundik *Euskal-iztiya* argitaratu zuen.


Hala ere, bitxien artean bitxiena dugu 1912an B.tar P-k Bilbon argitaratutako liburua: *Euzkerazko ikasbide*. Esaldien aldibereko itzulpena baliatzen du euskara ikasteko. Gainera, lehenbizikoz, testu honen bitartez euskara ikasten duen ikasleak, erakunderen batean sinatzen du euskara ikastearen konpromisoa (ahal izanez gero, Euzko Alderdi Jeltzalearen egoitzan), eta ikasitakoaren probak gainditzen ez baditu, isuna ordaindu beharko du.

1912an, B.tar P.k Bilbon argitaratu zuen *Euzkerazko ikasbide eraza*. *Método fácil para aprender el euzkera*, esaldien bat-bateko itzulpenean oinarritutako euskara ikasteko metodoa. Arraroa izateaz gainera, ez zen batere eraginkorra ikasteko metodo hau, nahiz eta egileak azaldu oso denbora laburrean ikastea bermatzen

duela. Bitxia da gibel-solasean egileak proposatutako ekinbidea, ikasleek euskara ikas dezaten, ez betetzeak isuna ordaintzea ere eragin dezakeena: «Jóvenes en particular, vascos todos! ¿queréis realizar una obra patriótica? Pues aquí tenéis un compromiso que debéis firmar y que debéis esforzaros para que otros firmen, haciéndole objeto de constante propaganda... (Fulano de tal)... me comprometo a demostrar dentro de... (seis... doce meses) a partir de esta fecha, mi suficiente conocimiento del método... (“Euzkerazko ikasbide eraza” etcétera.)..... ante el tribunal designado por... (la Juventud Vasca de Bilbao, el Batzoki ó Sociedad de tal, ó B.B.B.)... Caso de no comparecer á examen ó de no ser aprobado para esa fecha, pagaré una multa de Ptas... (2, 5, 10, etc.) que dicha entidad destinará a premios y otros gastos de los exámenes de euzkera. (Lugar, fecha y firma)». B.tar P. hori Federiko Belaustegioitia zen.

1913an, J.M.Lertxundik *Euskal-iztiya* argitaratu zuen. Honako hau aditzak euskaraz ikasteko metodo berria dugu (gipuzkeraz hain zuzen ere).

Beste gramatika batzuk gaztelaniaz idatzitakoak dira, *Método práctico para aprender vascuence* esate baterako,



Lertxundiren *Euskal-iztiya*. 1913



Arruzaren *Euskeraz ikasteko bide eraza*. 1934

Bilboko udal eskolatako euskara irakaslea zen M.de Arruzak idatzia. Bitxia da liburuaren lehen orrialdean idazten duen oharra, garaiko egoeraren testigu agertzen zaiguna, hara: «Esta obra no contiene materia alguna que pueda considerarse atentatoria a la unidad de la patria.- El autor». Testu hau 1925ekoa zen, eta 1934an egileak berak euskarazko bertsioa eskaini zuen: *Euskeraz ikasteko bide éraza*.

Ostean, hainbat silabario eta kartila argitaratuko dituzte Eusko Ikaskuntzaren babespean; hala nola, *Umearen laguna*, *irakuñtzen ikasteko biderik érezena* 1920an, Isaac López Mendizabalek eta, honen laburpena den *Martin Txilibitu*. *Irakurbide laburra* 1931n.

3.-IPUINAK ETA FABULAK

Euskal literaturaren esparruan, azpimarragarria da gai erlijiosoa ez duten testuak agertzen hasten direla. Hauei esker, irakurgai aukera anitzagoak sortzen zaizkie euskal irakurleei, helduak izan edo haurrak izan. Zentzu honetan, fabulak eta maitagarrien ipuinak, haurrentzako



ipuinak alegia, dira nagusi; baina itzulpenak dira, ez jatorrizko sorkuntza lanak. Vicenta A. Mogelek aipatu bezala, entzuteko literatura da. Honako honek eragingo du biztanleriaren gehiengoarengana iristea.



Estilo honetako lehen idazlana, Vicenta Antonia Mogeli (1782-1854) zor diogu, ezaguna zaigun lehen idazle emakumezkoa bestalde. J.A. Mogel idazle ospetsuaren iloba dugu bera. 22 urte zituela argitaratu zuen *Ipui onac, ceintzuetan arquituco dituzten euscaldun necazari, ta gazte guciac eracaste ederrac beren vicitza zucentzeco*. Hau fabula bilduma bat da, gehienak Esopori dagozkionak, prosan idatziak, eta hauez gainera, bere osabak idatzitako zortzi ipuin. Hitzaurrean, *euskal irakurleei* eskainia, latina eta gaztelaniaren ikaskuntzari emana dagoela adierazten du, sinestezina bere garaiko neska batentzat. Eta adierazten du zeinen irakasbide aproposak diren fabulak, haur eta nekazari gazteek bide zuzena jarrai dezaten. Fabulez gainera, hainbat animalien izenak azaltzen ditu, gaztelaniarako itzulpen eta guzti, haien jatorri etimologikoa azpimarratuaz. Adibide gisa, honako hauek ditugu: «Ontza. Buho. Ona guztiz, edo kalterik sortzen ez duena», «Astoa. Asno. Ibilera motelekoa, asti doa-tik datorrena», «Zapoa. Sapo.

Zabala edo zapaldua. Hemendik dator zapaldu», «Zorria. Piojo. Zorra, edo betebeharra. Gure jatorri miserable adierazten du». Hitz batzuei aitortutako etimologia bitxia da, egileak berak aitortu bezala.

J.A.Mogelen lana ere garrantzi handikoa da euskal literaturan, *Peru Abarka* idazlana bereziki. Honako hau dugu izenburu osoa: *El doctor Peru Abarca, catedrático de la lengua bascongada en la Universidad de Basarte o Diálogos entre un místico solitario bascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan*, 1802. urtean idatzia eta 1881ean argitaratutakoa, baina eskuizkribu modura ezaguna. Irakurketa liburutzat hartu ahal dugu, eta bertan, Euskal Herriko ohituren berri ematen digu, bertako tradizio katolikoaren eta euskararen defendatzailea den nekazaria eta hiriko bizimoduan egokituta dagoen bizarginaren arteko elkarriketa dela medio. Garaiko nekazaritza-giroaren erakusle bikaina dugu.

Goyhetché apaizak La Fontaineren lana euskaratu zuen. Baionan argitaratu zuen 1852an *Fableac edo aleguiac Lafontenetaric berechiz hartuac*. Bertsotan itzuli zuen. Hitzaurrean, fabulak haur eta helduek irakurtzea zeinen egokia den azpimarratzen du egileak, bertatik irakaspen ugari jasotzen zirelako. J. A. Iturriagak ere, Samaniegoren berrogeita hamabost fabula itzuli zituen bertsotan, bai eta Virgilioren lehen eta hirugarren eglogak ere, bere *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado o Ipuiak* lanean jasoak, eta Hernaniko bere eskolara zihoazen ikasleei eskaini zizkien; bidenabar, eta garai hartako eskasia kontuan izanik, aipatu eskolako materiala osatu egiten zuen. Testu hau 1932an berrargitaratu zen, *Iturriaga'ren ipuiak* izenburuarekin eta Aitzol abade euskaltzale ospetsuak egin zion hitzaurrea.



Iturriagaren ipuinak. 1932ko argitalpena

Gazteleraz ere argitaratu ziren irakurketa liburuak eta hauetan, hurrei zuzendutako adeitasun eta portaera zuzena arautzen da; hala nola, gizabide arauak, garbitasun eta txukuntasuna, obediencia...



Aginagako eskola. 1950

Testuen alderdi materiala

Idazlan hauek garaiko testuen ezaugarri tipografikoak berak dituzte. Testu horietako asko elebidunak izanik, zutabe bikoitzak edo hirukoitzak agertzen dituzte, hizkuntza kopuruaren arabera.

Erabilitako euskara idatzia dela eta, oraindik estandarizazio prozesurik gauzatu ez denez, hainbat euskalkitan idatziak daude, gaztelania edo frantsesaren grafia erabiliaz eta gehienetan hitzaurreak gaztelaniaz edo frantsesez daude idatziak. Gainera, derrigorrezko lizentzien txostenak eta elizaren onespina ere txertatzen zituzten aurretik, batez ere dotrinatan, beraien edukia ez zela fede katolikoaren printzipioen aurkakoa agertzearren.

Bere itxura formala dela eta, lan horien tamaina gogoan, hogeitazentimetro ingurukoak izaten ziren; eta orrialde kopuruari dagokionez, ehun orrialdetik beherakoak, Arzadunen dotrina izan ezik, oso txikia baita. Ez zuten ez marrazkirik ez eta inolako ilustraziorik izaten, eta soilik berrogeita hamarreko hamarkadaz geroztik argitaratutakoek izaten zuten azala koloretan, egilearen izena, argitalpen tokia eta urtea erakutsiaz batera.

4.-EUSKARAZKO TESTULIBURUAK

Abertzaletasunaren sorrerarekin batera ekiten zaio, XIX. mendearen bukaeran, euskarazko irakaskuntzaren aldarrikapenari eta hogeigarren hamarkadaren inguruan du bere gailurra. Izan ere, garaiko eskola eta hezkuntzaren egunerokoan, maisu-maistrek espainieraz

irakatsi ohi zuten nagusiki; hau da, irakasleek ez zekiten bertako hizkuntza. Bestetik, indarrean zegoen curriculumak ez ditu abertzaleen nahiak asetzen. Egoera hau salatu eta hainbat irtenbide ematen saiatu ziren. Batzuek, Espainiako eskolari boikota egitea proposatu zuten (Campión), baserrietan irakastea beste batzuek (Aranzadi), euskaldunentzako ikastetxeak sortzea (Azkue, Arana ...) zenbaitek, edo elebitasuna ezartzea (Landeta, Elizalde)...; alegia, ikastolak, auzo eskolak, euskal eskolak... sortzea. Ekimen hauen inguruan gauzatuko dira eskola-liburuak, euskaldunei zuzenduak, haien hezkuntza euskaraz gauzatu ahal izateko. Langintza honetan ahalegin eta ekarpen handia egin zuten Eusko Ikaskuntzak eta López Mendizabalen moldiztegiak.

Eusko Ikaskuntza eta eskola-liburuak

Eusko Ikaskuntzak (Sociedad de Estudios Vascos-Eusko Ikaskuntza) 1918an egin zuen bere lehenengo biltzarra Oñatin. Honek, aldarrikapen abertzaleak biziberritu zituen eta bere ingurura bilduko dira euskal kulturgileak. Elkartearen Irakaskuntza Saila atalik garrantzitsuenetakoa zen eta euskal eskolaren aldarrikapena bere egiten zuen. Bizkaian sortutako auzo-eskolak zirela eta, horrek eragindako premia hezitzaileak ase nahian, eskola-liburuak euskaraz argitaratzea sustatu zuen⁹. Lehenengo biltzar honetan, Hezkuntza Saileko ondorioen artean jaso zen premia hau; testuak argitaratzearen beharra hain zuzen ere.

⁹ Arrien, G.: *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia (Escuela y autonomía, 1898-1926)*, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 1987.

Hona hitzez hitz: «Como medio para la obtención de libros y material de texto euskérico, la sección estima que para con aplicación en las escuelas del País, nada tan natural como la celebración de concursos en los que, sobre bases amplias que estimulen la labor de los especialistas, se premie los mejores textos escritos indistintamente en la lengua de su preferencia, que se presenten a concurso»¹⁰. Lehiaketa horien sustatzaileak Foru Aldundiak izango dira, batez ere Bizkaikoak, lurralde horretan kokatuta baitaude ikastetxeok. Beraz, lehiaketara irtengo dira, Euskal Herriaren geografiarekin lotutako liburuak, irakurketa liburuak, gizabidea eta higienarekin lotutakoak... Edozein euskalki eta ortografiatan idatz zitezkeen, nahiz eta azken inpresioa, bizkaieraz eta Sabino Aranaren ortografiarekin egingo zen¹¹. Baina arazo politikoak medio, jarduera hau eragotzi zuten eta gainera, bere aurkako kanpaina sustatu zuten, errotik baztertuaz argitarapena bera ere.

SEV-EIren jardunak euskarazko testuak sortzeko proiektuak sustatu zituen, hauek sarituaz eta argitalpena bideratuaz; bereziki, historia liburuak eta irakurketa liburuak bultzatuz. Hala ere, Primo de Riveraren diktadurak argitalpen mota hauek eragotzi zituen. Baina 1931tik aurrera, erakundearen aurrekontuaren zati handi bat testuliburuak argitaratzeko erabili zen eskola-curriculumaren gaiak lantzeko Lehen Mailako Irakaskuntza Batzordearen bitartez. Testuinguru

10 *Primer Congreso de Estudios Vascos. Recopilación de los trabajos de dicha asamblea, celebrada en la Universidad de Oñate del 1 al 8 de septiembre de 1918, bajo el patrocinio de las Diputaciones Vascas*, Bilbo, Bilbaina de Artes Gráficas, 1919-1920, 945 or.

11 Arrien, G.: *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia (Escuela y autonomía, 1898-1926)*, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 1987, 172-173 or.

honetan, Euzko Ikastola Batzaren babesean sortutako euskal eskolak (1932 eta 1937 artean) eta Donostiako Muñoa Fundazioaren ikastetxeak jaso zuten aipatu materiala, bai eta Aita Zabala-Arana-ren ekoizpena ere¹².

López Mendizabalen moldiztegia

Familiako moldiztegi honetan argitaratu ziren testu garrantzitsuenak; bai silabarioak, irakurketa-liburuak, aritmetika, geografia, historia liburuak, zein elkarrizketarako eskuliburuak, kristau-ikasbideak... 1907tik 1935a bitarte. Bertan argitaratutako testuen alderdi materialari erreparatzen badiogu, berrikuntza nabarmena antzeman dezakegu alderdi tipografikoan. Honako testu hauek modernoak dira, irakaskuntza mailari egokituak, irudiak, mapa, kolore eta gainerako berrikuntzez hornituak. Ikonografia ere berria da, modernoa eta tradizionala ederki uztartzen dituela.

Ezaugarri horiek nabarmenak dira batez ere irakurketa-liburuetan eta 1920tik aurrerako argitalpenetan (*Umearen Laguna, Xabiartxo, Martin Txilibitu...*).

Urte berekoa dugu *Txomiñ-ikasle*, gipuzkeraz zein bizkaieraz idatzita, marrazkiz hornitutakoa.

Marrazki hauek idatzita dauden objektuak irudikatzen dituzte eta hauen irakurketa errazteko jarritakoak dira. *Sabin euskalduna* dugu bestea, B. Estornes Lasak gipuzkeraz idatzia, irakurketaren bigarren mailarako egokitua.


12 Arrien, G.: *La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas y las colonias escolares, 1932-1940*, Bilbao, Onura, 1983.



López Mendizabalen *Umearen laguna*



Txomiñ-ikasle. 1931



Umearen lagunaren aurreneko argitarapena. 1920



Sabin euskalduna. 1931



Martin Txilibitu. 1931



Sabin euskaldunaren barruko orria



Ume koxkořentzat euzkeraz egindako zenbakiztiya edo aritmetika. 1913



Zenbakiztiya, lenengo maĒea. 1932

Testu hauetan ilustrazioak dira irakurketaren ikaskuntzarako oinarri. Metodoak silabikoak ditugu guztiak ere, eta hitzen ezagutza pixkanaka lantzen dute aipatu marrazkien bitartez.


Aritmetika eta zientzia testuak

Aritmetika eta Zientziaren gainean argitaratutako liburu guztiak euskal eskolako oinarritzko irakaskuntzan erabiltzekoak dira. Lehenengoa dugu 1913an López Mendizabalek gipuzkeraz argitaratutako *Ume koxkořentzat euzkeraz egindako zenbakiztiya edo aritmetika*.

1920an Luis Elizalde idatzi eta Bizkaiko Foru Aldundiko Irakaskuntza Batzordeak argitaratu zuen *Lenengo ikasle maĒarako Euskal-Zenbakiztia*, molde berekoa da. Hauer gainera, aritmetikari buruzko bi testuliburu argitaratu zituen J.M. Zabala-Aranak; 1929an lehenengoa, *Euskerazko Zenbakera*, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*-en argitaratutakoa, eta *Zenbakiztiya*, 1932an, Euzko-Ikastola-Batzak kaleratutakoa. Horiez gain, eta 1923an, geometria lantzeko liburua ere eman zuen argitara: *Daneuřtizia*.




Zenbakizti lengaien ikastia. 1933



Daneurtizia: amabi ataltxotan. 1923

1935koa eta 1936koa ditugu G. Jauregiren *Pisia* eta *Kimia*, fisikaren eta kimikaren oinarritzko kontzeptuak lantzen dituzten testuak.


Halako testugintzak ez zuen aurrekaririk. Jauregik zabaldutako bidea oztopoz josia ageri zen, baina ekinak saria merezi zuen. Egilea prest zegoen ibilbide horretan lan egiteko. *Pisiaren* sarrera-testuan horrela adierazi zuen: «Euskaldunei euskeraz idazteko gaxen etoŕten yakuna, auxe dok: gauza guztiak esateko itz zafik ez



Kimia. 1936

eukitzea, eta dagozan guztiak ez yakitea. Baña, itxaron apur baten. Aldi gutxi baru gure gaztediak erdera baño, euskera obeto irakuŕi, idatzi ta itz egingo yok; eta orduan ikusiko dok, euskel-itz bariak atonduten ibili gareanon aintza norañokoa izango dan. Eta egun ori laster yatorkuk».

Geografia eta Historia testuak



Jauregiren Pisía. 1935

Ez dira ugariak geografia eta historiari buruzko eskola-liburuak. Hiru dira soilik geografiako testuak eta bakarra historiari buruzkoa. A.M. Azkuek idatzi zuen lehenengo geografia testua, *Erkindea-Geografia*, Bilbon argitaratua 1900ean.

Euskaltzale elkarteak antolatutako sariketan irabazle gertatu zen. Gaztetxoei zuzendutako galde-erantzunez osatutako lana dugu, bi zutabetan idatzia.

1922an, Zabala-Aranak *Euzko-lutelesti txikia* idatzi zuen.

Hogei orrialdetan, euskal lurraldeak deskribatzen ditu modu sinplean, beren ezaugarriak, nekazaritza



Euzko-lutelesti txikia. 1922

ekoizpena, hiri nagusiak, etab. nabarmenduaz. Mapa bat ere badu eta hainbat gairi buruzko galderak agertzen dira.

Modernoagoa dugu 1932an Aita Pirmin Iturriotz irakasleak argitaratutako *Lutelesti. Iru maletan*. Gipuzkeraz zein bizkaieraz argitaratu zuen Eusko Ikaskuntzak eta ilustrazio ugariz hornituta dago, argazki eta mapak barne.

Lan honek hiru zati ditu: lehena, geografia orokorrari buruzkoa, Euskal Herriko geografiaren gainekoa;



Lutelesti. 1932

bigarrenak eta hirugarrenak gainontzeko herrialdeetakoa hartuko dute ardatz. Gai guztiek egitura bera dute: azalpena lehenik eta behin, galderak jarraian eta osatu gabeko idatziak, ikasleak bete beharreko hutsuneekin. Euskal Herriko maparen presentzia etengabea da. Lanaren zer-nolakoa ezaugarritzeko egilea horrela da mintzo sarreran: «Lutelesti au egitean, auréz-auré izan ditut, eusko umeak. Abentzat idazti egoki, atsegin eta garbia egiten saiatu naiz. Ume txikiei okel zati aundirik etzaiela eman bear, koskoritu bitartean, eta lenengo malako lutelestitxo au argitaratzen det aientzat. Ondoren etoriko dira koskoragoentzat, bigarén eta irugarén malako jeogapiak».

Urte berean, 1933an alegia, Bernardo Estornes Lasak *Historia del País Basko* argitaratu zuen, nahikoa mardula, 448 orrialde zituen eta itxuraz behintzat ez litzateke egokia eskola-liburu gisara erabiltzeko. Euskal Herriaren historia apologetikoa islatzen du. Handik bi urtera, Ander Arzelusek euskaratuta, bi ediziotan eman zuten argitara Estornes Lasaren lanaren egokitzapena: *Euskal Edestia* eta *Euskadi'ko edestia*.



Euskadi'ko edestia. 1933

Irakurketa-liburuak eta ipuinak


Eskola-liburuen esparruan gehien jorratutako arloa irakurketa-liburuena du. Garai hartako material didaktikoa hain urria zenez, hauekin osatu nahi zen eskaintza. Testu hauen egileak apaizak ditugu, baina baita abertzale ezagunak ere. Honi guztiari esker, garaiko abertzaletasunaren oinarri ziren erlijio-printzipioak, nazio nortasuna, tradizioak, euskararen defentsa, etab. eskolatik bertatik oso modu agerikoan indartuko dira.

Aita R.M^a Azkuek, 1893an Bilbon argitaratu zuen *Lenengo irakurgaia Bein da betiko*, euskal kulturaren zaindari ospetsua izan zen Antoine D'Abbadieri eskainitakoa. Euskal Herria Pirinioek zatitzen dutela aitortuta ere, «alboko herriek» euskarari nola eragiten dieten agerian utziko du. Hona Azkueren eskaintza: «Euskal-erriak, bizi al izateko, biotz bakar bat dauko, egiazko euskaldun guztien biotz guztiakaz egiñiko biotza. Zer balio dau, euskaldunak batuteko, Pirineoetako mendi-erreskadeak? Zulatu beie (mendean daukelako) Españiarrak eta Frantsezak menditeri latz ori; arri-ikatz-kez kedartu beiez beren erraiak, gazteluz iosi daioela arrizko azala. Zer iaritxiko dabe albo-erri gaztetxuok gure Ama zaarraren gorputza gau ta egun, oiñez ta burdiz, burdiñaz ta suz zaurituarren? Ezta asko gure Ama samurraren bizia il al izateko, beren bizkar-azurra (Pirineoetako menditeria) ta gorputza zulatutea. Euskaldun onak munduan dagozan artean, Euskal-erria ezta berez erioko, ezta ez benetako areriok ez izen utseko adiskidek il al izango».


1910. urtean J.M. Lertxundi aita kalasanzdarrak *Polli ta Pello* ipuina argitaratu zuen. Ipuin hau, irakaspen moralez josita zegoen. Lertxundik berak argitaratu

zuen 1925ean *Gauzen ikaskizunak umientzako*. Euskal Herriko ipuin eta tradizioak biltzen ziren bertan.

E. Bustintzak, *Kirikiño* goitizenez ezagunagoak, *Abarak* idatzi zuen 1918an, eta lanaren segida *Bigarrego abarak*



Polli ta Pello. 1910



Gauzen ikaskizunak umientzako. 1925



Ipuin laburak. 1922



Bigarren Abarak. 1930

dugu, 1930ekoa. Batean zein bestean, gertakizun eta pasadizo barregarriak agertzen zaizkigu.

1922an argitaratu zuen Bitor Garitaonandiak *Ipuin laburak*. Hemeretzi kontakizun labur dira, umeentzat berariaz idatziak.

Hogeigarren hamarkadatik aurrera, planteamendu abertzaleak agerikoagoak dira mota honetako testuetan.

Nabarmen agertzen zaigu Vincent de Aizkibel-en lanean, 1917. urtean argitaratutako *Ipuin Aberkoyak*-en alegia.

Hala ere, ongien agertzen zaigu bilduta abertzaletasuna, argitaratu zenetik itzelezko hedadura izan zuen *Xabiertxo*, Umei euskeraz irakurtzen erakusteko idatzia testuliburuan.




Xabiertxo. 1925

Liburu hau, López Mendizabalek argitaratu zuen 1925. urtean. Eusko Ikaskuntzak babestu zuen eta Euskalerrriaren Alde elkarteak saritu egin zuen 1923an. Ilustrazioak Jon Zabalo *Txiki*renak ditu, bereak baitira testuliburu hauen irudi gehienak. Liburu hau zen kartilaren ostean irakurtzen zen lehena. Erlijioa eta ohiturak ederki islatzen dira bertan; lehenengo ikasgaia ikustea besterik ez dago, «Jaungoikoa» izenburua daramana hain zuzen ere. Bertan agertzen denez, berak sortuak gara, zintzoak izateko. Familiaren garrantzia nabarmendu egiten da bertan, haurrek gurasoei zor dieten begirunea azpimarratzen duela. Naturak ere isla argia du, nekazaritza eta ohiturak azalduaz.

Errepublika garaiko euskal eskolek, beren artean izan zuten garaiko pedagogorik berritzaileenetakoa, Julene Azpeitia hain zuzen ere. Berak argitaratua da 1932an *Irakurri maite*, euskaraz eta gaztelaniaz, eta *Osasuna, merketza ta yanaritzaz*, osasuna hobetzeko iradokizunak, merke erosi eta ondo elikatuaz.

Aholku emate literatura dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratu zuen 1933an *Nekazaritzako irakuráldiak* «mendi-aldeko ikastoletako» hurrei eskainia (honela izendatzen dira bertan landa eskolak, Bizkaiko auzo-eskolen antzerakoak).



Nekazaritzako irakuráldiak. 1933

Argitalpen honetan, nekazaritza eta abeltzaintzarako aholkuak biltzen dira, uzta ugariak lortzeko eta zaintza-ohitura berriak zabaltzeko.

Garai horretan, Grimm anaiak eta Wilde idazle ospetsuen modukoak ipuinen itzulpenak argitaratzen jarraitu zuten¹³, bai eta dotrinak, erlijio-liburuak eta batez ere, Gaspar de Asteteren dotrinaren itzulpenak, Fleury-ren historia sakratuaren itzulpena eta otoitzak ikasteko erlijio liburu sorta zabala ere.

Testuen alderdi materialari dagokionez, jadanik ikusi berri dugu modernizatu egin direla bereziki hogeigarren hamarkadatik aurrera. Dagoeneko koadernaturik ditugu, ilustrazio modernistez hornituta, horietako gehienak Jon Zabalo *Txikirenak*. Tamaina ere aldatu egiten da; handiagoak dira orain, gehienak 15 x 20 cm artekoak dira, eta ehun inguru orrialde dituzte. Agerikoa da erabateko kontzientzia dutela garai honetan, ekoizten ari diren materiala, eskola-umeentzat dela eta sasoi honetan gauzatzen ari diren hezkuntza-esperientzia berrietan erabiltzekoak direla.



¹³ Altuna, J.: *Ipuñak. Wilde 'tar Oskar*, Bilbao, Jaureguibeitia'tar Ander, 1927 (bizkaieraz); *Grimm anayak. Ipuñak*, Bilbao, Jaureguibeitia'tar Ander, 1929 (bizkaieraz). Larracoechea, H.: *Grimm Anayen berrogeitamar ume-ipuin*, Bilbo, Jesús Álvarez, 1929.

FRANKISMOA ETA EAE-KO AUTONOMIARA ARTEKO TRANTSIZIOA. BERRIKUNTZA PEDAGOGIKOA

Gerra-osteak eragin handia izan zuen Euskal Herrian alor guztietan. Gainera, hizkuntza eta kultura diferentea izateak areagotu egin zuen egoera, arauak zorrotzago aplikatuaz eta aplikaraziaz; bai zentsurari buruzkoak, zein maisu-maistrei buruzkoak, bereziki Gipuzkoan eta Bizkaian¹. Espainiaren batasuna zalantzan jar zezakeen oro zigortzen zuten eta horrela edozelako neurriak berehala aplikatzen zituzten Euskal Herrian; hala nola, haurrak gaztelaniazko izenekin bataiatzera behartu, euskal izena zuten itsasontziak berrizendatu, edo euskaraz jendaurrean hitz egitea debekatu².

Frankismoaren lehen aro honetan argitaratutako literatur apurra, erbestean moldatu zen³. Egoera honetan murgilduta, ulertzekoa da nekeza izatea garai honetan euskaraz idatzitako eskola-liburuak aurkitzea.

1946. urtean sortzen dira *etxe-eskolak* Donostian, Elvira Zipitria irakasle abertzaleak zuzenduta, eta honekin ematen zaio hasiera gerora ikastolen mugimendua izango zenari eta eskola-liburuaren premiaren aldarrikapenari⁴.



Elvira Zipitria. 1939

Elvira Zipitriak urratutako hezkuntza-esperientzia, beste irakasle batzuek jarraitu zuten 1946 eta 1960 artean⁵.

Etxe-eskolen izaera pedagogikoa, Eskola Berriaren Mugimendu pedagogiko berritzailean zuen oinarria, eta erabiltzen zuten metodologian islatzen zen: eskola-liburuak testu bakar gisara erlatibizatzea, metodologia aktiboa indartzea, etab. Hala ere, aldi horretan, gerra aurretik erabilitako ikasliburu eta irakurketa-liburuak erabiltzen jarraituko da, ez baitzegoen beste aukerarik eta debekatuta zegoen berriak euskaraz argitaratzea. Aldi honetan, 1937 eta 1960 artean, 90 liburu inguru baino ez ziren argitaratu⁶.

1 Ostolaza, M.: *El garrote de la depuración. Maestros vascos en la guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*. Donostia, Ibaeta Pedagogia, 1996.

2 Euskalzaindia: *Euskararen liburu zuria*. Bilbo, Euskaltzaindia, 1977.

3 Intxausti, J.: *Euskera, la lengua de los vascos*. Gasteiz-Donostia, Elkar-Eusko Jaurilaritza, 1992.

4 Fernandez, I.: “La escuela vasca y la larga historia de la postguerra” Dávila, P. (Koord.): op. cit., 1995, 159-193 or.

5 Aranburu, X.: “Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: Ikastola. Elbira Zipitriaren biografiarako jakingaiak: Ikastola Donostian 1942-1969 urte bitartean” *Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección: Educación*, 4, 1991.

6 Torrealdai, J.M.: “Catálogo general de libros 1937-76”, *Euskal idazleak gaur*, Arantzazu, Jakin, 1977, 569-626 or.

Hala ere, haur literaturak gora egingo du nabarmen; batetik, ipuinen itzulpenak egiten hasi ziren eta bestetik, Gerra Zibila baino lehenagoko testuak berreskuratu eta argitaratzeari ekin zitzaion. Hauek osatu zuten Zarauzko Itxaropena argitaletxearen Kuliska sorta⁷ 1952an.

Testu horietako batzuk, euskal etxeetan eta etxe-eskola hasi berritan hasi ziren zabaltzen. Hauen artean nabarmentzekoa dugu Julene Azpeitiaren *Amandriaren Altzoan*⁸ irakurketa liburua. Horrela azaldu zuen Juan San Martinek, liburuari egindako hitzaurrean, Azpeitiaren ekarpenaren garrantzia: «Urri dira euskeraz “Amandriaren altzoan” bezin liburu onak aurrentzat. Geiago esango nuke: oraindik zentzunera sartzeke dauden umeentzat ere euskera traketz ta baldarrean egindako liburuak ikusten ditugula, pedagogiaren funtsik gabe. Nagusiak ere iruntsi eziñiko liburuak dituzte gure aurrak. Emengo garbikeriak ez du akaburik. Ipuin kontuan beintzat, Julene’k bete digu utsune aundi bat, orain, Gipuzkoako umeak badute non ase». 1961ean *Umien adizkidia* kartila argitaratu zuen pedagogo abertzaleak.


Nolanahi ere, gure ustez, eskola-liburuen eskasia adierazten du dagoeneko ezaguna dugun *Xabiartxoren*⁹ berreskurapenak, bere lehen edizioa 1923an izan baitzen.



7 Calleja, S.; Monasterio, X.: *La literatura infantil vasca. Estudio histórico de los libros infantiles en euskara*. Bilbo, Ediciones Mensajero/Universidad de Deusto, 1988.

8 Azpeitia, J.: *Amandriaren Altzoan*. Zarautz, Itxaropena Argitaldaria, 1961.

9 Lopez Mendizabal’dar, I.: *Xabiartxo*. Tolosa, Imprenta de López Mendizabal, 1932.



Julene Azpeitiaren
Umien adizkidia.
1961

1.-IKASTOLEN MUGIMENDUA ETA ESKOLA-LIBURUEN PREMIA

1960. urtetik aurrera, hainbat aldaketa sozial, politiko eta kultural izan ziren, baita hezkuntza mailakoak ere, eta hauek guztiek positiboki eragin zuten eskola-liburuen ekoizpenean eta haur-literatura modernoaren sorkuntzan. Sasoi honetakoa ditugu helduen euskalduntze (euskaraz ez dakiten helduek hizkuntza ikastea), berreuskalduntze (euskara galdu duten helduen hizkuntza berreskuratzea) eta alfabetatze (euskaldunek euskaraz irakurtzen eta idazten ikastea) prozesuak ere. Testuinguru honetan sortu zen ikastolen mugimendua, euskaldunen berezko hizkuntza eta kulturen eskolatu ahal izateko premiari erantzun nahian. Honela, hainbat ikastetxe sortu ziren Bizkaian¹⁰ eta Gipuzkoan¹¹, Iruñean eta Gasteizen 1964an eta Baionan

10 Arrien, G.: “Bizkaiko ikastolak, 1957-1972. Beren hasiera eta antolaketa. Las ikastolas de Bizkaia, 1957-1972. Sus orígenes y organización” en Eusko Ikaskuntza. *Cuadernos de Sección: Educación*, 7, 1993.

11 Fernandez, I.: *Oroimenaren Hitzak. Ikastolen historia 1960-1975*. Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea, 1995.

1969an. Urte honetan bertan eratzen dira Gipuzkoako eta Hego Euskal Herriko Ikastolen Federazioak, Arabako Ikastolen Federazioa 1974an, Nafarroakoa 1976an eta Bizkaikoa 1977an. 1988koa dugu Ikastolen Konfederazioa. Hauetan, ezinbesteko premiaztat jotzen da testuliburu eta eskola-liburuen argitalpena eskolatze prozesuan erabiltzeko.

Ikastolen bilakaeran bi aldi antzeman ditzakegu. Lehena, hirurogeigarren hamarkada dugu hain zuzen ere eta ezaugarri nagusiak lirateke baliabide eskasia, elizaren babes, autogestioa, auto-finantzaketa, titulu ofizialik gabeko irakasleak nagusi izatea, eta abar. Bigarrena, 1970eko Hezkuntza Legearekin hasi eta 1978ko Konstituziorainokoa dugu, pixkanakako legeztatzea dakarrena. Bigarren aldi honetako ezaugarri ditugu legeztatzeaz gainera, ikastolen hedakuntza, ikastetxeen eraikuntza, irakasle tituluak, material pedagogikoen sorkuntza eta lanketa, eta abar¹².

Testuinguru horretan, prestakuntza eta materialen garapenaren eremuan, bi talde sortu, eta pixkanaka-pixkanaka irakasleentzat erreferentzia nagusi bilakatu ziren: Gordailu lehena, 1968-69 ikasturtean sortua Donostian eta Iker bigarrena, Bilbon sortua 1972an. Biak ala biak, ikastoletako maisu-maistra taldeak izaki, beren argitalpen baimenaren lagapena egin zioten Bilboko Cinsa argitaletxeari¹³.

12 Basurko, F.: "La normalización de la ikastola: breve historia y estado de la cuestión de la escuela pública vasca" en Dávila, P. (Koord.): op. cit., 196 or.

13 Calleja, S.; Monasterio, X.: *La literatura infantil vasca. Estudio histórico de los libros infantiles en euskara*. Bilbo, Ediciones Mensajero/Universidad de Deusto, 1988, 152 or.

Talde hauen helburua zen ikastoletako ikasle eta irakasleek erabili ahal izateko ikasmateriala euskara batuan sortzea. Beren ekarpen nagusiak Gordailuren *Ikastola Liburutegia* eta Iker-en *Saioka* izan ziren. Talde hauen ekarpena oso baliagarria izan zen. *Ikastola Liburutegia*, gaika egituraturako bilduma zen (gizarte hezkuntza, historia, natura-zientziak, etab.). Liburuki bakoitzak, 32 orrialde baino gutxiago zituen, argazkiz, mapaz eta irudiz hornituak. *Saioka* liburuak, tamaina handikoak dira, ikasgaiak modu berritzailean lantzen dituztenak, eta ilustrazio egokiez hornituak. Gainera, fitxa didaktikoak ere izango dituzte osagarri.



Saioka

Ondoren, ikastolen legeztatzea dela-eta Euskal Herrian sortutako argitaletxeek ekingo diote testugintzari (Gero, Elkar, Erein).

Nolanahi ere, garai honetan oraindik erabiltzen dira ikastolatan testu «klasikoak»; hala nola *Aurtxoa*¹⁴ irakurketa liburua, 1968an Euskarazaleak elkarteak Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntza ekonomikoari esker argitaratu zuena. Iñaki Goikoetxeak 1970ean idatzi zuen *Giza-Soiña*, eta Zarauzko Itxaropena moldiztegiak argitaratu, gipuzkeraz eta bizkaieraz, nahiz eta egileak hitzaurrean aipatu euskara batuan argitaratzeak izango zuen garrantzia, aurreagoko utzita.



Giza-Soiña

Liburuaren egiturari erreparatzen badiogu, lehen atala ikasgaika antolatuta ikus dezakegu, gorputza eta zentzumenak lantzen direla. Bigarren atalean, landutako

¹⁴ Muñoa Orbea'tar, I. y Foruria Arteta'tar, J.E.: *Aurtxoa Izkindegi*. Bilbo, Estudios Grafor, 1968.

gaiekin lotutako irakurgaiak biltzen ditu eta azkenik, euskal abestiak agertzen dira, pentagrama eta guzti, egilearen hitzetan «aurtxoen biotz-buruetan sar dedin». Ilustrazioak ere baditu liburu honek.

Sorkuntza lanez gainera, garrantzitsuak izan ziren era berean itzulpenak. Horrela, Kataluniako Timun Mas argitaletxeak 1969. eta 1971. urteen artean, *Margo Ederdun Entziklopedia* argitaratuko du, hamasei liburukiz osatua. Tamaina handiko liburu hauek, osagarri gisara oso erabiliak izan ziren eta ikastola gehienetako liburutegiak hornitu zituzten. Liburuki hauetako batzuen izenburu ditugu *Sortalde Urrutia*, *Afrika*, *Biblia*, *Xomorroren Mundua*, *Abereen Mundua*, *Industriaketa aundiak*, *Izartegia*, *Erriade guztien historia*, etab.

Valentziako Gaisa argitaletxeak, euskal kulturaren puntako idazleekin elkarlanean euskarara itzuli zuen 1971. eta 1972. urteen artean Walt Disney entziklopedia tematikoa. Liburuki gutxiago ziren, baina tamainaz eta aurrekoaren antzekoa. Anaya argitaletxeak ere 1975. urtean antzerako entziklopedia bat itzuli zuen: *Kosmos I, II, III*, bai eta haur eta gazte literatura, irakurgaiak eta komikiak; esate baterako, *Ardo ta Ogi*, *Martxelin* eta *Herrialde Berdea*.

2.-AUKERA PEDAGOGIKO BERRIAK, TESTULIBURUAK ETA ESKOLA-MATERIALA

Aipatu bezala, Euskal Herrian, bereziki ikastolen mugimendua dela-eta sortutako aukera pedagogiko berriak, hauen araberrako material didaktikoaren sorkuntza eta lanketa ekarri zuen. Honi gaineratu



Euskalduntzen

zitzaion lehentxeago aipatu bezala, entziklopedien itzulpena, eta 1970. urteaz geroztik, eta bereziki 1975. urteaz geroztik, itzelezko argitalpen kopurua irakurgai eta haur-literaturaren alorrean¹⁵.


Euskararen gramatikak direla eta, aipagarria da berauek ugaritzea. Giltzarri izan zen 1968an Euskaltzaindiak abiatutako euskararen estandarizazio prozesua (euskara batua). Honek eragin zuen 1969tik aurrera oinarritzko gramatikak argitaratzea; hala nola: F. de Mendizabalen *Euskaldunentzat gramatika euskeraz*, 1969an; *Euskeraz egin*, Bilbon 1973an; Fermin Iralagotiaren *Ikas-Bidea*, Gasteizen 1975ean, edo Iñaki Goikoetxearen *Nora zoaz? Método intuitivo y ameno para aprender euskera. Euskera ikasteko bide ona eta polita* Bilbon, 1976an.

¹⁵ Torrealdai, J.M.: *Euskal Kultura Gaur: Liburuaren Mundua*, Oñati, Jakin, 1997,

Garai honetan euskara ikasteko metodoak garatu egin dira, bai ikuspuntu material zein metodologikotik ikusita. Alde batetik, ohiko irakaskuntza metodoak ditugu, gramatika ezagutzan oinarria dutenak, Patxi Altunaren *Euskara, hire laguna* esate baterako. Bestetik, hirurogeita hamarreko hamarkadan urrats kualitatibo garrantzitsua izango da metodologiaren alorrean, hizkuntzaren



Euskara, hire laguna



Jalgi Hadi

berbazko erregistroari garrantzia ematearena alegia; nahiz eta oraindik ere erregistro idatzia nagusi izan eta arau gramatikalei erreparatu. Arau gramatikalak azpimarratzen dira, baina itzultzea saihesten da.

Honelakoa dugu *Euskalduntzen* metodoa, irakasle talde batek sortua. Bertan, ulermena lantzeko irudiak sartzen dira.

Azkenik, metodo audiolingual deritzenak ditugu, eta hauetan ahozkoztatunari ematen zaio garrantzi nagusia. Hori bermatzeko, ikus-entzunezko estrategiak baliatzen dituzte. Mota honetakoak ditugu *Jalgi Hadi*, *Hondarraitz* izeneko talde batek sortua eta *Hitz Egin!*, Euskaltzaindiak 1978an prestatutakoa, ingelesa ikasteko L.G.Alexander-en *First Things First* metodo ezagunaren egokitza penaa.

3.-*ARAUDIA ETA EUSKARAZKO TESTULIBURUAK*

Testuinguru honetan, 1979an errege dekretu bat argitaratuko da (1049/79 apirilaren 20koa) *elebitasun dekretua* izenekoa, eta euskararen sarrera arautzen duena Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sisteman. Gernikako Autonomia Estatutua onartzen denean, euskararen koofizialtasuna aitortzen da eta 1982ko ekainaren 21ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerkuntza Sailak arautzen du testu-liburu eta ikasliburuak baimentzea.



ERANSKINA: **LIBURUEN EDUKIEN BILAKAERA**

Jarraian datozen orrialdeotan eskola-liburuek erakutsitako edukiak nola itxuratu diren ikusi ahalko dugu.

ILUSTRAZIOEN ITURRIAK:

EMD (Euskal Memoria Digitala), Sancho el Sabio Fundazioa, GureGipuzkoa.net,

Liburuklik: Euskal Liburutegi Digitala, Commons.wikimedia.org, HPS.



DOCTRINA
CHRISTIANAREN
TEXTOA.

PATER-NOSTERRA.

Math. c. 6. à v. 9. usque ad 13. II. Luc. 6. 11. à v. 1. usque ad 5.



Ita geurea, Ceruetan
zaudena : santifica-
tua izarbidi ceure
icena. Betor ceure
reinua gugana. Eguinbidi ceu-
revorondatea, nola Ceruan , à
la lurrean. Eman eguiguzu e-
gun gueuren egunoroco ogura.
Eta barcatu eguizcutzu gueutē
zorras , gueuc gueren zordu-
nai barcatzen diegun beecela.
Eta tentacioan erorten eutzi
oz gaizatzula. Baicigan libra
gaitxatzu gaitcetis, Amen.

A

Ain

Ochoa de Arinen dotrina. 1713

I. Jaincoac.

G. *Certaco Jaincoac creatu çaitu eta eman mura dura ?*

I. Haren eçagutceco, maitatceco eta cerbitçatceco, eta bide hortaz bicitce eternalaten ardietseco.

BI-GARREN LECCIONEA.

Jaincoaz, eta Trinitate Sainduaz.

G. *Er da Jaincoa ?*

I. Jaincoa da Izpiritu bat ahala perfeta, ceruaren eta lurraren Creatçaillea, eta gauça gucien Jauna eta yabea.

G. *Non da Jaincoa ?*

I. Lekhu eta gauça gucietan da.

G. *Jaincoa lekhu gucietan denaz gueroz, cer-gatic eztugu guc ikusten ?*

I. Ceren hura baita Izpiritu huts bat gorphutzië gabecoa.

G. *Badire hainitz Jainco ?*

I. Ez, ezta Jainco bat baicic, eta ecin içan daireque guehiago.

G. *Badire hainitz presuna Jaincoa baithan ?*

I. Bai, badire hirur, Aita, Semea eta Izpiritu Saindua.

G. *Aita Jainco da ?*

I. Bai, Aita Jainco da.

G. *Semea Jainco da ?*

I. Bai, Semea Jainco da.

G. *Izpiritu Saindua Jainco da ?*

I. Bai, Izpiritu Saindua Jainco da.

G. *Hirur presuna huc hirur Jainco dire ?*

*Becatu Capitalae , edo besteen iturbu-
ruac dira zazpi.*

Lenengoa , Soberbia. Bigarrena,
Cuticia. Hirugarrena , Luxuria.
Laugarrena , Ira. Bostgarrena , Gula.
Seigarrena , Embidia. Zazpigarrena.
Naguitasuna.

*Zazpi vicio oien contra dira Zazpi
virtute.*

Soberbiaren contra , umiltasuna. Cu-
ticiaren contra , liberaltasuna. Lu-
xuriaren contra , castidadea , edo gar-
bitasuna. Iraren contra , paciencia.
Gularen contra templanza. Embidiaren
contra caridadea. Naguitasunaren con-
tra diligencia , edo arreta.

Gorputzaren Sentiduac dirade bost.

Lenengoa , beguiz ecustea. Bigarre-
na , belarriz enzutea. Hirugarre-
na

Bidazubia	el viaducto.
Zubia	el puente.
Vagoi bat	un wagon.
Telegrafoa	el telégrafo.
Postechea	la casa de postas.
Bridac, aotesquiac	las riendas.
Ronzala, elocaya	el ronzal.
Mocadua	el bocado.

Barcu bat	un barco.
Ontzi bat	un navío.
Lancha bat, chalupa bat	una lancha.
Batel bat	un batel.
Vapore bat	un vapor (buque).

Equipagea, presbearra	el equipaje.
Baula, cuchalaba	el baul.
Maleta, bidazorroa	la maleta.
Gauzacua	el saco de noche.
Sombrerera, chapel zorroa	la sombrerera.

Ichasquindea eta ugaroa. Marina y navegacion.

Armada, ontzidia	la armada, la flota.
Bergantiña	el bergantin.
Corbeta	la corbeta.
Fragata	la fragata.
Goleta bat	una goleta.
Ontzi eramantzallea	el remolcador.
Embarcacio bat	una embarcacion.
Aingura bat	un ancla.
Amarra bat	una amarra.
Ontzian egotea	á bordo.
Ontzian artzea	tomar á bordo.
Ontziaren ezquerreco sa- yetza	el babor.
Ontziaren escuico sayetza	el estribor.

Zazpigarren jolasa.

Séptima conversacion

A. Naico nuque, Basilio, cerbait jaquin chingurrien gañean.

B. Asco chingurri mueta dira: batzuec chiquiangoac besteac baño. Negu guztia lotan igarotzen dute.

A. Nola iltzen ez dirá?

B. Beren guicentasunac irauna azotzen die. Au beran guertalzen da suguearequin, musarrarequin, eta beste asco animalirequin. Cembat bider heri gaudenean ez guera egoten guero ere illabete osoetan ecer artu gabe. Chingurrien artean batzuec dira arrac,

A. Quisiera: Basilio, saber algo de las hormigas

B. Hai muchas especies de hormigas, unas son mas pequeñas que las otras. Todo el invierno lo pasan dormidas.

A. Cómo no mueren?

B. Su propia gordura los mantiene. Esto mismo sucede con las culebras, marmotas, y otros muchos animales. Cuantas veces, cuando nos hallamos enfermos no nos estamos nosotros mismos meses enteros sin tomar nada. Entre las hormigas las unas son machos,

dils dols duls. Dant dent dint
dont dunt. Tans tens tins tons
tuns. Tars ters tirs tors turs.

Cans quens quins cons cuns. Cars quers
quirs cors curs. Mans mens mins mons
muns. Mars mers mirs mors murs. Mals
mels mils mols muls. Nare nere nire
nore nure. Nals nels nils nols nuls. Zars
cers cirs zors zurs. Zans cens cins zons
zuns.

AMAIRUGARREN IRACURTZA.

Ez eguin iñori zuri eguitea nai ez de-
zunic.

Beti izan bear dezu pobreen adisquidea.

Jarri bear dezu zure esperanza Jaun-
goicoagan, eta obratu beti cristau bati da-
goquion moduan.

Zure etsaya arquitzen bada estutasun
batean, bear dezu amparatu eta arindu
bere pena.



LEOIA ZÁREZ ILTZEN.

Leoi aundi zar-zar bat,
ez il bai ilean
luze-luze etziñik
zegoen lufean:
urteen zamak zeukan
ezin ibilirik
gizajoak etzuan
iñun beste miñik.

Oñuaz mendiz-mendi
zanean lenbizi
abereak zebiltzan
argandik igesi:
bat bakañikan etzan
guztien artean
itxorongo zionik
iñolaz bidean.

Orain ikusirikan
etziñik lufean,

esan dedan bezela
ez il bai ilean,
an dijoaz laisterka
txiki eta aundiak
eta ito nai dute
gaxoa guztiak.

Zitalen kontua da
gaxoa danari
egin nai izatea
para eta ifi.

Gizon zintzoak ez du
onela jokutzen;
gaxoenari dio
geyena laguntzen.

Ontan jakin nai ba-dek
legeak diona,
irakurri zak ondo
Goiko Beñi Ona.

Iturriagaren ipuinak. 1932ko argitalpena

III

(E + A — IA: XLI ikaskizuna ikusi)

INAKITXU TA INAKETXU

- Inake, ezton ikusi eizkarijak basotik ekari yoen basaurdia?
- Ez, Inaki. Zer dok *basaurde*?
- Basoetan bixi don urdia.
- Zein margo edo kolore yaukak?
- Urdin-urdina don, gure astuaren sabela lakoxe.
- Ori dok gaur goxetik ekari don bele andija?
- Orixe don.
- Eta nun daukak ire ateak igaz yeukan belia?
- Il zonan.
- Noz il zuan?
- Aurtengo lenengo astian.
- Guk etxian yaukanagun beyaren esnia esne edera don.
- Eta guk upe andi bi txakolin yaukaguz.
- Bana upiak beterik bai-yagozan?
- Bete-beterik. An yuan agure ak ekari yauskuzak upiak.
- Nundik? Bakio'tik?
- Bai: bertakua dok aguria.

IV

(E + O — IO: XLI ikaskizuna ikusi)

ANDERTXU TA JONTXU

- Aratsaldion etxuagu idoroten abi bat bez.
- Emengo artioak eztozak on-onak abirik eukileko.
- Sayariok txori asko jaten yoezala usto yuat.
- Sayariok eta beliok be...
- Ez: beliak etxaroyen jaten pizti ilak bano besterik.
- Astion juango gozan uretan must-egitera?
- Ni bai.
- Zetarako dozak untziok?
- Amu batzuk egileko.
- Untze asko daukazak; bana eztozak onak untziok.
- Lariok etxaukek txirxi'rik ala?
- Lare onetan inoz eztozak ixan asko.
- Bidiok eruango gayabezak beste lare obiago batera.
- Bide onetatik be erazago higurtuko gozak etxerantz.



AMA


Ma Me Mo Mu Mi
ma me mo mu mi

a-mu, e-me, u-me
ma-mi, mu-ga, mu-gi
mu-su, su-ma, sei mai
me-a, ma-ya, a-ma-ya

A-ma-bi u-me a-se.

A-ma-sei se-me a-ma-ga-be.

O-gi ma-mi-ga-be-a.



LEGATZ

Atz Utz Etz Itz Otz
itz etz utz otz atz

A-di-tza-le o-na-ri, itz gu-txi.

Al-di jo-a-na bi-ur-tzen gaitz
da.

A-ritz as-ko dan ur-te-a,
bes-te-ak ba-ño ez o-be-a.

A-fo-tza-ren e-txe-a zo-tzez,
zo-tzez e-re gai-tzez.

A-fo-tz-e-fi, o-tso e-ri,

A-fo-tzak es-ku-a latz.





SABIN EUSKALDUNA


Sabin mutiltxo on bat da.
Bere gurasoak asko maite dute.
Goizeko zazpitan jaikitzen da ikas-
tetxera joateko.

Jaiki baño len Aita Gurea eta Agur
Miren bat esaten ditu.

Gero garbitu; gero gosaldu eta idaz-
tiak artzen ditu.

5

Sabin euskaldunaren barruko orria, 1931



MENDIAK

Euskadi'ko alde batetik bestera
mendikateak dijoaz.

Iru dira aundienak.

Lenengoa, «Sorkaldeko» edo «Eki-
yalkikoa», Anie'ko tontofetik asi eta
Donibane Garazi'raño dijoana.

Bigafena, «Erdikoa», Donibane Ga-
razi'tik asi eta Tolosa'raño.

Eta irugafena, «Kantaurikoa» Tolo-
sa'tik Balmaseda'raño.


Txakadaka zenbatu

$$1^{\text{a}}. \quad 6 : 3 + 7 + 3 - 6 : 2 + 3 + 3 + 3 - 4 - 6 =$$

$$2^{\text{a}}. \quad 30 : 3 + 10 + 10 : 2 : 3 + 3 \times 3 : 2 + 6 - 12 =$$

Onetara beste eragokunak, be.

Ikasliak esaten dana buruz egin biald-dabe, ta azkenian zenbatzu geratzen diran esan ala idatzi.



Asmakixunak

1^a Goiko ikastola ofetan zenbatzu mutiko dagoz?

2^a Zenbatzu dagoz zutunik? Zenbatzu jezaia?

3^a Alde bakotxan zenbatzu dagoz zutunik eta zenbatzu jezaia?

4^a 30 ume irunaka iminizkero, zenbatzu iruko-talde ixango dira?

5^a Eta erdiak bina ta beste erdiak irunaka iminiz-

Zenbakiztija, lenengo marea. 1932

I

AZALAK


1. Begiratzen ditugun gauzai *azalak* ikusten dizkiegu.

2. Azalak bitakoak dira: *labak* eta *makurak*.

Orma zuzenaren alde *azal* laba da; orma makurarena, ordea, *azal* makura.

3. Azal laba irutakoa da: *zutuna*, *etzuna* ta *eroria*.

4. Azal zutuna, zutik, edo goitik bera, dagona da: *etxeko orma-azalak*.



Daneur'tiztia: amabi ataltxotan. 1923

III Ikaskaya

EURIJA TA IBAYAK



Ikuskayen Begiradea.—Artzaña zetan dago? — Zenbat ardi dauz aldian? — Eguraldi ona ete-dau? — Os-
kirik (oñetakorik) ba-dauko? — Zelakuak?

II.—Zenbat ur-zulo ikusten dozuz? — Arkatxetatik urik jausten ete-da? — Iturburuba ikusten dozu? — Iba-
ya ikusten dozu? — Ibaya iturburutik sortzen da?

III.—Iturburutik sortu dan efekea ikusten dozu? — Ura nasai ala estu dua efekan? — Eta ibayan?

IKASKAYA

—*Euriya*, odejetatik tantoka jausten dan ura da.

—Euriyen urak, batzuk lufpera duaz ta bestiak lufgan,
lubaki, latsa ta efekatxoetatik ibaira ta itxasora.


—Lufpera dijoazen urak batzuk lufak txukatzen dauz,
ta bestiak lufpeko lubaki ta efekatxoetatik, iturburuetara
doiaz.

—*Itufia*, lufpetik ganera urteten dan ur-arija da.

—*Latsa* edo efekea eten-bako ur-ari medar ta estua da.

—*Ibaya*, eten-bako ur-ari zabal ta lodiya da.

—*Izaroa*, ibaya beste ibayan edo itxasoan sartzen dan
lekuari, deritxogu.



URANTZU INGURUBAN

— 8 —

Lutelestija: iru maletan: euskerazko lenengo maia: bizkayeraz. 1932

ABENDAK.



Gizon guziak
soñia berdintsua
dute.



Bañan
lañuaren margoa ez
dute berdiña.

Ludi ontan abenda asko dira.
Batzuek, lañua zuria dute.



Besteak, oria.
Besteak, goñia.
Besteak, beltza.
Bañan guziok,
Jainkoaren semeak
gera eta geren
artean anayak.




AZIA.

Landare guziak, beren azia ematen
dute. Azi bat lurpean sartzen ba-da
ernetu egiten da. Bañan oñetarako urez
busti bear da. Eta bero egin bear du.

Udaberian, batez ere, ernetzen dira
landareak. Azia erne danean, jayo ta
landare egiten da.


Azi txiki-txiki batetik askotan zuaitz
aundi bat sortzen da.

FAMILIAN JAIO GARA GUZTIOK



Karmeleren amak
ume bat izango du.
Orain arte,
sabelean eduki du.
Laster jaioko da.

Haur bat jaio da
IBON deituko dute.
Txiki txikia da.
Nigarrez ari da.
Gose da.



Amak titia ematen dio Iboni.
Karmele ere berdin jaio zen.
Hau ere txiki txikia zen.
Orain, Karmele handiagoa da.
Ba daki bakarrik jaten.
Ibon mutil handia haziko da.
Aita bezain handia izango da.






BEGIAK

IKUSMENA

Ikusi begiakaz ikusten dogu. Ikusmena gure bi begiai zor dautsegu. Ortzi garbian eguzki argia, udabarrian landetako loretxo politak, mendi ta itxasoa, erri ta baserri txikiak, mendi gaiñetik ikustea, bai dala gauza zoragarria.

Margolariak margo edo kolore politekaz, irudi ederrak egiten dabez. Ortzi garbia **urdiña** da. Gau illuna **baltza** da. Udan gari-solo elduak urre **ori** antza artzen dabe. Bedar arteko bioletak, **ubelak** dira. Zugatz **orlegien** babesean ezkutatuta baserri politak ikusten doguz. Baserrien aurrekaldea **zuria** da, eta tellatua **gorria**.

Begi-labur diranak, akatz ori zuzentzeko **betaurrekoak** ipintzen dabez. Betiko illunpetan **itsu** bizi bearra, bai dala zoritxar aundia! ! !



Giza-Soiña. 1970

EUSKARA MINTZAGAI

1. Euskararen geografia historikoa
2. Ahozko hitzetatik idatzietara
3. Euskal Herriko prentsa:
XVIII. mendetik 1945era
4. Euskara eta euskalkiak
5. Herri literatura
6. Euskarak erakutsi koloreak ikusten
7. Gure eskola-liburuak



www.euskara.euskadi.net

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN: 978-84-457-3163-5



9 788445 731635